

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jaurrieta



Aurkibidea

Udalerria: Jaurrieta

Sarrera



Jaurrieta (Eaurta euskal hiztunen ahotan) Zaraitzuko udalerria da, haranaren ipar-mendebaldean dagoena, Otsagitik 8 kmra.

Mendebaldetik, Aezkoako Abaurregainekin egiten du muga. Iratiko basoa hurbil-hurbil dauka. 912 metroko garaieran dago. Hazitarako patata, abeltzaintza eta basoa dira bizibide nagusiak, nahiz eta gaur egun bigarren eta hirugarren sektoreek ere pisu handia izan.

Jaurrietakoak izan dira Zaraitzuko azken euskaldunak. Dagoeneko ez da gelditzen euskaldun zaharrik, azkenak duela gutxi hil baitziren. Nahiz eta Abaurregaina oso hurbil izan, Aezkoako euskarari oso ezberdina iritzi izan diote jaurrietarrek.

- **Biztanleak:** 237
- **Euskaldunak:** %28,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **11**
- Transkribatutakoak: **9**
- Audioak: **11**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Aitor Elortzaren Nafarroako grabazioak
- Fondo partikularrak
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Mari Cruz Esarte Esarte (1916)

Eaurtan (Jaurrieta) jaioa. Aita ere bertakoa zuen; ama, berriz, Espartzakoa.

Salbador Karrika Karrika (1903-2001)

Jaurrietako (Eaurtako) Eskujuri baserrian jaio zen. Gurasoak ere eaurtarrak zituen. Artzaina, Erriberan pasatu ohi zuen urtero negua; han ikasiomen zuen erdaraz. Zuberoako artzainekin ondo moldatzen zen euskaraz. Herriko azkenengotariko euskaldun zaharra, Jabiera Urralbururekin batera. Grabazio hau 1997 inguruan egin zitzaion eta, tamalez, oso gaizki entzuten da.

Karmelo Krutxaga Esarte (1899)

Jaurrietan jaioa 1899an. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Rafael Krutxaga Esarte (1901)

Jaurrietan jaio zen 1901ean. Gurasoak ere bertakoak zituen. Baserriko lanetan aritzen zen umetatik, amak bera hartu zuelako "etxerako". Artzain ere ibilia da. Donibane Lohizune inguruan ere ibili zen lanean hiru negutan, zuhaitzak botatzen. Elkarrizketan Silberia Torrea Adot (1908) emazteak ere parte hartu zuen.

Jabiera Urralburu Migelena (1906-1998)

Bilbao baserrian jaio zen. Gurasoak herrikoak zituen. 1998an Aitor Elortzak egindako elkarrizketan Jaurrietan hiru euskaldun bakarrik gelditzen zirela zioen. Senarra Aezkoakoa zuen eta euskaraz aritzen ziren. Aezkoakoa euskara "distintoa" dela dio. Xalbador Karrika herriko artzainarekin ere euskaraz egiten zuen. Bi hauek izan dira, dirudenez, Zaraitzuko azken euskaldun zaharrak.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Ez du euskara batua ulertzen

- **Hizlaria(k)**: Urralburu Migelena, Jabiera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Aitor
- **Erref**: JAU-001/001
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Xuka egiten du, xuabeagoa iruditzen zaio. Euskara batuan idatzitako programa bat irakurri zuen eta ez zuen entendatu "ja" ere ez.

Transkripzioa

- Uskera xu "diferente" zuenetik.
- Bai, bai, badakigu.
- Bai.
- Ona da anitz.
- Gurea xu: xu, xu, xu...
- Bai, xuka.
- ... suabeago! eta berze kori... Oraigunian xin xinuen... "Programa de fiestas" xin xinuen eta ez nixun entendatzen ja...
- Ezer´e? Deuse?
- ... uskera kartan.
- Deuse?
- Ez.
- Batre?

1.2. Orain ez du ia inorekin egiten euskaraz

- **Hizlaria(k):** Urralburu Migelena, Jabiera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Aitor
- **Erref:** JAU-001/003
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:03:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Aezkoar batekin ihardokitzen zuen euskaraz. Xalbador Karrika herrikidearekin ere bai.

Transkripzioa

- Baita "parecido" Aezkoakoa. Baia ya faten xira bestera eta ez da /etxu/... Eta orai, orai ez baitut xardokitzen ihorekin, pues, ezta nihaurena ere. Eta ezta faterik.
- Xalbador Karrikakin xardokitzen xu uskarara?
- Salbador Karrika? Salbador Karrika... egon [zadia]?
- Bai.
- Eta?
- Ongi.
- Ongi?

1.3. Euskara galzorian Jaurrietan

- **Hizlaria(k):** Urralburu Migelena, Jabiera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Aitor
- **Erref:** JAU-001/005
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Gurasoek euskaraz egiten zuten eta eurek ere bai umetan. Senarra ere euskalduna zuen, Aezkoakoa, eta ia dena euskaraz egiten zuten. Eaurtan hiru euskaldun geratzen dira bakarrik.

Transkripzioa

- Gaztezutu keen herrian uskara xardokitzen zenuen? Adiskideekin, haurra zinenian?
- Haurra nintzarian bai.
- Beti euskarara?
- Haurra nintzarian ikasi ginixun [gehiago], porke aitamek xardokitzen baitzien uskera.
- Aetzekin zer xardokitzen duzue?
- Ez.
- Barkatu, "a ver si hablaba con los vascos."
- "Con los aezcoanos. " Aetzekin.
- "Sí, y el marido era vasco también, y casi todo hablabamos..."
- "Pero les conteste en vasco, en vasco madre. En castellano no le hace falta..."
- Uskarara, uskarara.
- Bai, senarra zinuen aezkoatik eta xardokitzen zuen anitz uskera. Eta harekin xardokitzen baiginuen. Hoek ez zixien ikasi. Umeek ez zixien / etzixien/ ikasi nahi izan, baia guk guharen artean xardokitzen ginixun uskera... anitz!
- Beti?
- Eta orai ya ez xardokitzearekin... erdia ahatzerik, erdia ahatzerik.
- Deuse. Eta bada keen herrian bertze uskaldunik zutaz aparte?
- Ez, etxu. Salvador Karrika eta...
- Bere arreba?
- ... etxu berzerik.
- Bertzerik ez?
- Ez, ez.

1.4. Gaztelerazko esaldien itzulpenak

- **Hizlaria(k):** Urralburu Migelena, Jabiera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Aitor
- **Erref:** JAU-001/007
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:07:09. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Bi esaldi itzultzen ditu. Ez du gogoratzen inoiz Erronkariko inorekin euskaraz hitz egin duenik.

Transkripzioa

- "Te voy a dar una frase en castellano para que me traduzcas al euskera, para traducir".
- "Si".
- "A ver. Mi hijo va al monte".
- Ene semea faten xu oihaneala.

- "A ver, otra... Antes en Jaurrieta se hablaba mucho vasco".
 - Lehen Eaurtan xardokitzen xinuen euskera anitz.
 - "A ver, otra. En Roncal ya no quedan vascos. En Roncal ya no quedan vascos".
 - Ronkalean, Ronkal... Erronkarian ya ez die xardokitzen euskerarik. Apenas, guti.
 - Ta zu xardokitu izan duzu noizpait hango jendeakin? Ronkalean?
 - "A ver si ha hablado con alguno de Roncal en vasco alguna vez".
 - "No recuerdo".
 - "¿No recuerdas?"
 - "No recuerdo".
 - "¿No recuerdas?"
 - Ta Urraulgoitikoekin? Urraul, Urraulgoitikoekin?
 - Urraul?
 - Bai, Urraul, Urraulko...
 - "Con el valle de Urraul, si ha hablado con alguien..."
 - "Ah, no".
 - "No, no, no, no".

1.5. "Unai", behiak zaintzen dituen

- **Hizlaria(k)**: Karrika Karrika, Salvador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Aitor
- **Erref**: JAU-002/002
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:09:05. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: "Unai" hitza darabil behizaina esateko

Transkripzioa

- Bada Almiranteina edo... baten lehen artzai bat Aezkoan? Almiranteina edo?
 - Aezkoan artzai?
 - Bai.
 - Ez ginuen artzai... bueno ba, artzai... Aezkoan izaten da artzaia hurren; kan egonda, behiekin, unai.
 - Unai?
 - Ardiekin kemen gehiago /ken yago/. Kemen faten zen ardiekin Erriberala eta korra.
 Aezkoan ez. Aezkoan uda kor, eta kor... behiekin.

1.6. Eaurtako Eguberrietako kanta baten zatia

- **Hizlaria(k)**: Urralburu Migelena, Jabiera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: JAU-006/001
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- **Laburpena:** Eaurtako Eguberrietako kanta baten zatia. Kanta hori euskaraz ikasi zuen, baina beste asko gaztelaniazkoak ziren.

Transkripzioa

- Eta zure gazte dembran eta, ikasi zinuen eta, e, ze(r)a, kantuz? Uskaraz?
 - Kan, kantuz erderaz.
 - Erderaz, e?
 - Kantoak erderaz.
 - Bai. Euskarazkorik bat ere ez?
 - Ez, ez, ez. Kantatzen genixun, ta, "sin embargo, pues..." erderaz ziten.
 - Eta, eta, eguberritan, ez zinu, ez zinuten eta...?
 - E, eguberri "si no en euskera".
 - Bai?
 - Bai.
 - Eta zer?
 - Eta, kola ikasi genixun.
 - A bai? Ze, zer zen? Ze kantu zen?
 - Bai, baia eztiakixut, atze zaidaxu.
 - Aiba!
 - "Eguberri, eguberri, gaur dala eguberria, guziak jauna sortu da, dugun alegria da". Ta gero: "Kristo xin da mundura, guztia erreskatatzera, goazen guztiok Belenera, Jesusen adoratzera". Baie, itzuz e... e(z)tiakixu segitzen.
 - Kori solo?
 - Bai.
 - Ta luzeagoa da?
 - Eztiakixu segitzen.
 - Atzendu, e?
 - Ta gero, gero...
 - Atzendu zaizu?
 - Gero... atze zaidaxu. Gero, "kristo..., a, argi, e..." atze zaidaxu, atze, atze. Eta pollita zen, zera, eskribitrik pollita zen. Kura, uskeraz xinuen ta ikasi genixun, baia baitzen kengoa, kengo uskera da.
 - Bai, bai, bai.
 - Xinuen klaroago ezik bertzeokoek.

2. Baserria

2.1. Garia eta ogia

- **Hizlaria(k):** Urralburu Migelena, Jabiera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Aitor
- **Erref:** JAU-001/009
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:17:57. **Bukatu:** 00:21:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Gariaren eta ogiaren prozesuak zehatz-mehatz azaltzen ditu.

Transkripzioa

- Zoritzen xinuen garia. Xardokitzen zixien gizonen eta emazteek. Bazkaltzen zixien. Biltzen zixien. Eta gero lotzen ginixun kura baletan, paketetan. Karriatu llarrenetara. Llarrenak lurrez. Eta konpontzen xintxan ur karriatuz eta zanpatuz zanpa-mailuarekin. Eta gero karriatzen ginixun garia eultziala. Eultzian baitzen garia eta abere bat edo bida balin baziren... bida baziren hola, baia bat bazuen pues batekin... pika kura. Eta gero haizea xiten zenian, haiza, berexi granoa eta agotza, eta biramuneko llarrena garbi. Agotza etsera eta granoa etsera, eta berzala borda zuenak bordala. Kori xinuen kemengo zera.

- Ogia?

- Ogia?

- Bai. Ez, ez dakigu. Erran!

- Garia bildu. Eta ez bazagon aski garbi, "aparejo" batekin garbitzen ginixun garia. Eta gero eramaten ginixun errotala. Garia eiho. Irina etsera eraugi eta "torno" batian, "a proposito" eginik, igaretzen ginixun irina. Eta etsen... bagintxun etsetan labeak. Eta... ogia bukatzen zenean egozten ginixun irina kajon batiala. Eta orantza egotzi baiginirokeen /baiginaukien/ altzineko arratsean. Orantza duxu /xu/ masa puxka bat, egiten ginixun gero ogiari esertzeko, ogia papotta eser zen... eser zadien. Eta ogia egin ginuen... egin behar ginuen egunean labea bizten ginixun etsen eta ogia oratzen ginixun. Eta ogia tapatu ongi labea eser zen artean "en condición" ogiaren erretzeko. Eta xiten zenean oreka ogiaren egiteko, egiten gintxun hamar librako ogi batzuk handi...

- Zomat ogiak? Zomat ogiak? Zomat?

- Hamabi "a lo mejor".

- Hamabi?

- Hamabi... edo hamar... edo, edo... hamalaur.

- Anitz ziren?

- Eta erretzen gintxun labe kartan aste erdixko batendako ogiak. Bukatzen zenean buelta berriz.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Festak nolakoak ziren

- **Hizlaria(k)**: Urralburu Migelena, Jabiera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Aitor
- **Erref**: JAU-001/011
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:21:17. **Bukatu**: 00:22:43
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Abereak zaintzera joan behar izaten zuten askotan festa egunetan. Musikari gutxi etortzen zen. Oinetakoak lokaztuta ibiltzen ziren dantzan.

Transkripzioa

- Igaretzen xintxan festak eta "a lo mejor" ez ginixun etsen egoteko egitekorik, baizik ere behar ginixun fan aziendala: behien guardatzera... edo ardiak guardatzera edo... aziendarekin. Musikoak eraugitzen zixien. "A lo mejor" gitarra bat eta akordeon bat edo... Gutti. Banda, e! Gutti. Musiko gutti.

- Banda txikia?
- Banda ez zen... orkesta!
- Orkestarik ez... "La banda!"
- "... municipal".
- Eta... artsetarik abaldu eta plazala. Euriari bazagon eta lohi lurrian "a lo mejor" zapetak kanbiaturik dantzatzeko han.
- "¿Le has entendido? Igual los zapatos después en el barro. ¡Qué plazas habría!"
- Baia jota. Ez ziren orduan agarraorik. Sueltoan. Jota.
- Suelto, suelto!
- Eta behar baitxinuen fite mogitu... zapetak lohian. Eta kala igaretzen gintzaxun festak. Baia orai, orai beino gehiago /yago/ dibertitzen gintzaxun.
- Bai?
- Orai beino yago.
- Orai beino yago?
- Orai ez.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eaurtako Gabon-kanta jada ahantzia (JAU-007/001)

Eaurtan Eguberrietan abesten zen gabon-kanta jada ahantzia duela dio.

2. Errege-eguneko "kabalgatara" (JAU-007/002)

Eguberrietan eskean irteten ziren garai batean. Errege egunean, berriz, "kabalgatara".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com